IRUNEN ETXEBIZITZA GAIEN AZTERKETA BAT EGIN ETA IDAZTEKO ZERBITZUAK PROZEDURA ARRUNT IREKI BIDEZ ESLEITZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATU BEHARREKO ARAUAK ETA KONTRATUA ESLEITZEKO MODUA

1.1. Irunen etxebizitza gaien azterketa bat egin eta idazteko zerbitzuak ematea da plegu honen arabera egiten den kontratuaren xedea.

Kontratuaren xedea helburu finalista batekin lotuta dago, Irunen etxebizitza gaien diagnostiko bat egitearekin alegia, Irungo Udalaren etxebizitza politiken arduradunei ahalik eta deskripzio eta ikuspegi zehatzena eskaintzeko hirian etxebizitza hutsen aldetik dagoen egoeraren eta egungo eskaintzaren eta eskariaren gainean, baita herritarren epe ertain eta luzeko joera eta beharren gainean ere; bereziki, gazteen joera eta beharren gainean.

Azterketak etxebizitza hustzat hartu beharko du erabiltzen ez dela dokumentatu dena, baita gutxi erabiltzen dena ere; hau da, behar adina zantzuren arabera hiriko etxebizitza eskaintzaren barruan sar daitekeena –horretarako, aurrez, aztertu beharko da ea egiaz eta berehala sar daitekeen alokairuko etxebizitzen eskaintzaren barruan, etxebizitzaren ezaugarrietan sakonduta (egoeran, neurrian, kokaleku zehatzean...).

Eskaria banakatu beharko da: lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskaria eta etxebizitzaz aldatzeko eskaria, eta are inbertitzeko etxebizitza eskaria ere. Gainera, bereziki interesgarria iritziko zaio etorkizuneko sustapenen benetako eskariaren azterketa xehea egin ahal izateko tresna eta metodologiak planteatzeari, mota guztietako sustapenak kontuan izanda (batetik, etxebizitza libreenak, babestuenak, etab. eta, bestetik, erosteko etxebizitzenak, alokairukoenak, etab.).

Azterketak analizatu beharko du nola aplikatu indarrean dagoen araudia Irun bizitegi merkatu tentsionatuko eremu izendatu izanaren ondorengo etxebizitza planari, eta, egiten den diagnostikoarekin bat etorriz eta Irun bizitegi merkatu tentsionatuko eremu izendatu zenetik etxebizitzari eta lurzoruari buruzko araudian egin diren aldaketetan oinarrituz (Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko Presako Neurrien abenduaren 11ko 6/2025 Legean eta Etxebizitzaren arloko erregelamenduzko xedapenak presaz aldatzeko apirilaren 21eko 55/2026 Dekretuan), zehaztu zein diren figura juridiko eta garapen esparru egokienak hiriko etxebizitza eskaerari, etxebizitzak birgaitzeko beharrei eta etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko beharrei erantzuteko.

Ildo horretatik, proiektuaren bidez aztertu beharreko gai nagusiak zehaztu beharko dira, baita hartu beharreko neurriak ere, baldintza teknikoen pleguarekin bat etorriz.

Kontratu honen kodea 79311000-7 da, “azterketa-zerbitzuak”, zeina Europako Batzordearen CPV nomenklaturari dagokion –Europako Batzordearen CPV nomenklatura jasotzen duena 213/2008 (EB) Erregelamendua da, 2007ko azaroaren 28koa, honako hauek aldatzen dituena CPV nomenklatura berrikusteari dagokionez: 2195/2002 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Kontratu publikoen hiztegi komuna onartzen duena (CPV), eta 2004/17/EB eta 2004/18/EB Direktibak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, kontratu publikoen prozedurei buruzkoak–.

Kontratua ez da banatuko lotetan. Izan ere, entitate bati baino gehiagori esleituko balitzaizkie zerbitzuak, zailtasun teknikoak izango lirateke kontratua behar bezala betetzeko.

1.2. Plegu honek eta baldintza teknikoen pleguak finkatzen dituzten kondizioetan emango dira zerbitzuak. Ondorio guztietarako, klausula administratibo berezien plegua, baldintza teknikoen plegua, eranskinak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintza kontratuaren barruko dokumentutzat hartuko dira; horrela, aldeen eskubide eta eginbeharrak arautuko dituzte, eta enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu, kontratua formalizatzeko ekitaldiaren barruan, ados dagoela adierazteko. Teknikoak baino ez diren gaietan izan ezik, plegu honen xedapenak, denak, espedientearen gainontzeko aukerako kondizioen gainetik egongo dira.

1.3. Honako hauek arautuko dute kontratazioa: plegu honek; baldintza teknikoen pleguak; Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Direktiben transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak; Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak; Estatuko lanak kontratatzeko klausula administratibo orokorren pleguak, zeina abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuaren bidez onartu zen; eta Estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzeko eta kontratazioaren esparruan aplikatu beharreko beste edozein xedapenek. Osagarri, administrazio zuzenbidearen esparruko gainontzeko arauak aplikatuko dira, eta, bestela, zuzenbide zibilaren eta merkataritza zuzenbidearen esparruan aplikatu beharreko arauak.

1.4. Kontratua zerbitzu kontratua izango da, SPKLren 17. artikuluaren arabera, eta pribatua izango da, SPKLren 26.1.b) artikuluaren arabera. Ildo horretatik, SPKLren 26.3 artikuluaren arabera, SPKLk berak arautuko du lizitazio honek arautzen duen kontratuaren prestakuntza eta esleipena, eta zuzenbide pribatuaren esparruan aplikatu beharreko arauek haren ondorioak eta azkentzea. Gainera, SPKLren 201. artikuluak ingurumen, gizarte eta lan arloko eginbeharrei buruz dioena aplikatuko zaio kontratuari, 202. artikuluak kontratuak betetzeko baldintza bereziei buruz dioena, 203.-205. artikuluek kontratuak aldatzeari buruz diotena, 214.-217. artikuluek lagapenari eta azpikontratazioari buruz diotena, eta 218.-228. artikuluek kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeari buruz diotena.

1.5. Kontratua prozedura arrunt ireki bidez esleituko da, zeina SPKLren 156. artikuluak eta hurrengoek eta APKLEOren barruan edo berau ordezkatzen duen arauzko xedapenaren barruan dagozkion artikuluek arautzen duten, eta, kontratua esleitzeko, askotariko irizpideak hartuko dira kontuan, kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onenean oinarrituz –klausula administratibo partikularren plegu honen 19. artikuluak dakartza esleipen irizpideak eta berauen puntuazioa–.

2. KONTRATUA EGITEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio espedientearen barruko justifikazio oroitidazkiak dakartza IRUNVIk plegu honek arautzen duen kontratua egin behar izateko arrazoiak.

3. KONTRATUA BETETZEKO EPEA. KONTRATUAREN LUZAPENAK

Kontratatzen diren zerbitzuak emateko guztizko epea SEI HILABETE izango da, eta kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da.

Epe hori igaro eta zerbitzuak ematen bukatu ez badu, kontratista berandutu egin dela ondorioztatuko da, eta ez da beharrezkoa izango elkarte kontratatzaileak aldez aurretik ohartaraztea.

4. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO TASA. GEHIENEKO AURREKONTUA. KREDITUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

4.1. Kontratuaren balio estimatua 41.322,31 € da, BEZa barne.

4.2. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 50.000 € da [41.322,31 € + 8.677,69 € (% 21eko BEZa)].

4.3. Kontratuaren prezioa esleipen prezioa izango da, eta inolaz ere ez da izango handiagoa lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino. Lizitatzaileek behetik egin beharko dituzte eskaintzak, eta eskaintzak inolaz ere ezingo dira izan handiagoak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino; handiagoak direnak baztertu egingo dira.

Ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak barruan hartuko ditu enpresa kontratistak kontratatzen diren zerbitzuak normal emateko egin beharreko zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak.

4.4. Kontratuaren prezioaren ordainketa aurtengo aurrekontuaren kontura finantzatzea aurreikusi da, 1.0710.433.01.152.10.2026 aurrekontu aplikazioaren kontura. Gainera, IRUNVIk beharrezkoak diren kredituak erreserbatuko ditu dagozkion ekitaldietako aurrekontuen barruan.

5. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen prezioak ez dira berrikusiko.

6. KONTRATUAREN ARDURADUNA

SPKLren 62.1 artikuluak dioenez, kontratuaren arduradunak, "kontratazio organoek esleitu dizkioten ahalmenen barruan, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko".

Gainera, eginkizun hauek izango ditu kontratuaren arduradunak:

a) Baldintza teknikoen plegua eta kontratuak edo xedapen orokorrek finkatzen dituzten gainontzeko baldintza teknikoak interpretatzea.
b) Kontratistak kontratatzen diren zerbitzuak emateko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolakuntza izan ditzan exijitzea.
c) Kontratuaren xedeak lortzeko beharrezkoak diren aginduak ematea.
d) Zerbitzuak behar bezala emateko egin beharreko aldaketak proposatzea.
e) Zerbitzuak ematen diren bitartean sortzen den intzidentzia oro tramitatzea.
f) Zerbitzuak behar bezala emateko eta haiek gainbegiratzeko egokitzat duen bilera oro deitzea. Enpresa esleipendunaren ordezkariak nahitaez joan beharko du bilera horietara, zerbitzuak ematen esku hartzen duten enpresako fakultatibo, teknikari eta espezialistek lagunduta.

7. KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA BETETZEA

SPKLren 62. artikuluaren arabera, IRUNVIko Zuzendaritza-Gerentzia izango da kontratuaren jarraipenaz eta betetze arruntaz arduratuko den unitatea.

8. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

SPKLren 63. artikuluarekin bat etorriz, "gardentasuna eta kontratazio jarduerari buruzko dokumentuetarako sarbide publikoa segurtatze aldera", helbide hau izango da IRUNVIko kontratatzailearen profilaren sarbide publikoa: https://www.irunvi.com/eu/gardentasuna/kontratatzailearen-profila/kontratatzailearen-profila-actual

9. JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, bai kontratatzailearen profilean argitaratuta, bai lizitatzaileak ematen duen helbide elektronikora helarazita.

10. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio organoa IRUNVIko Administrazio Kontseilua izango da, eta berariaz izendatzen den kontratazio mahaiaren laguntza izango du. Biek ala biek egokitzat duten aholkularitza teknikoa izango dute.

11. KONTRATAZIO MAHAIA

Honako hauek izango dira kontratazio mahaiko kideak: Administrazio Kontseiluko burua edo hark ordezkari izendatzen duen kontseilaria, zuzendari gerentea edo hark ordezkari izendatzen duen pertsona, Administrazio Saileko burua edo hark ordezkari izendatzen duen pertsona, Elkarteko administrari bat edo hark ordezkari izendatzen duen pertsona eta Elkarteko aholkulari juridikoa edo hark ordezkari izendatzen duen pertsona, mahaiko idazkari lanak egingo dituena. Nahi duten sailburuak ere kontratazio mahaiko partaide izango dira.

Kontratazio mahaiak, proposamena egin aurretik, beharrezkotzat duen txosten tekniko oro eskatu ahalko du, betiere kontratuaren xedearekin lotuta badago.

12. PLEGUAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Klausula administratibo partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua eta gainontzeko informazio osagarria kontratatzailearen profilean eskuratu ahalko dira, proposamenak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Proposamenak aurkeztu aurretik, enpresa interesdunak IRUNVIko administrari eta teknikariekin harremanetan jarri ahalko dira lizitazio honen zirkunstantzia espezifikoei buruz hitz egiteko.

Baldin eta enpresa interesdun batek pleguei eta gainontzeko dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badu epe baliodunaren barruan, SPKLren 138. artikulua eta APKLEOren 78. artikulua aplikatuko dira.

Pleguei eta dokumentazio osagarriari buruz eskatzen den informazioa eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino sei egun lehenago emango da gutxienez, betiere hamabi egun lehenago eskatu bada gutxienez.

Baldin eta eskatzen den informazioa klausula administratibo partikularren pleguari, baldintza teknikoen pleguari edo kontratuzko gainontzeko informazioari buruzko argibideak badira, erantzunak lotesleak izango dira, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Kontratazio espedienteari buruzko informazio guztia eta IRUNVIren kontratazio jarduerari buruzko beste edozein datu edo informazio kontratatzailearen profilean argitaratuko da, SPKLren 63. artikuluarekin bat etorriz.

13. ENPRESA LIZITATZAILEAK

13.1. Baldintza hauek betetzen dituzten Espainiako eta atzerriko pertsona naturalek eta juridikoek aurkeztu ahalko dituzte lizitazio honetarako eskaintzak, aurrerago zehaztuko den bezala: jarduteko erabateko gaitasuna izatea, SPKLren 71. artikuluak kontratatzea debekatzen duen egoeraren batean ez egotea eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala akreditatzea. Alde horretatik, kontratu jakin bat egiteko beharrezkoa den kaudimena akreditatzeko, enpresa beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, haiekin zer-nolako harreman juridikoak dituen gorabehera, betiere kontratua bete bitartean kaudimen eta baliabide horiek izango dituztela egiaztatzen badu eta beste entitateak SPKLren 75. artikuluak kontratatzea debekatzen duen egoeraren batean ez badaude.

Lizitatzaile bakoitzak eskaera eta proposamen bakarra aurkeztu ahalko ditu. Gainera, lizitaziora bere kabuz aurkezten bada, ezingo du sinatu beste enpresa batzuekin batera aldi baterako enpresa elkarte batean parte hartzeko eskaera edo proposamenik, eta ezingo da egon aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan.

Ez badira betetzen arau horiek, lizitatzaile horrek sinatutako eskaera edo proposamen guztiak baztertuko dira, baita hura partaide duten guztiak ere.

13.2. Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, haien estatutuek edo fundazio arauek barruan hartu beharko dituzte, haiek berezkoak dituzten helburu, xede edo jardueren barruan, kontratatzen diren zerbitzuak.

13.3. Kontratuaren esleipendun izateko, Europar Batasuneko enpresek eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoek kontratatzen diren zerbitzuak emateko gaituta egon beharko dute kokatuta dauden estatuko legediaren arabera, eta, baldin eta kokatuta dauden estatuko legediak baimen berezi bat izatera behartzen baditu zerbitzuak emateko, edo erakunde jakin bateko partaide izatera, eskakizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

13.4. Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona naturalek eta juridikoek eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetakoek, Espainiak atzerrian duen bulego ekonomiko eta komertzialaren txosten baten bidez, justifikatu beharko dute enpresaburu atzerritarren jatorriko estatuek onartu egiten dutela Espainiako enpresek Espainiako sektore publikoaren barruan parekotzat har daitezkeen sektore publikoko erakundeekiko kontratazioan parte har dezaten.

13.5. Aldi baterako enpresa elkarteei dagokienez, kontratazio organoak aldi baterako berariaz eratzen diren enpresa elkarteekin kontratatu ahalko du. Kontratuaren esleipendun gertatzen den elkarteak kontratua esleitzen zaionean formalizatu ahalko du eratzea, eskritura publiko bidez. Elkarte esleipenduna osatzen duten enpresak obligaziodun solidarioak izango dira IRUNVIren aurrean, eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratua azkendu bitartean beronetatik sortzen diren eskubideak erabiltzeko eta eginbeharrak betetzeko ahalorde nahikoak dituena.

Baldin eta lizitazio prozedura tramitatu bitartean eta kontratua formalizatu aurretik elkarte esleipendunaren osaera aldatzen bada, elkartea prozeduratik kanpo geratuko da, baita esleipen prozeduraren tramitaziotik kanpo ere baldin eta osatzen duen enpresaren bat kontratatzea debekatuta dagoen egoeraren batean badago.

Baldin eta elkarte esleipenduna osatzen duen enpresaren batek fusio edo zatiketa eragiketa batean parte hartzen badu, edo jarduera adar baten ekarpen edo eskualdaketa egiteko eragiketa batean, elkarteak esleipen prozeduran jarraitu ahalko du. Baldin eta sozietate xurgatzailea, fusioaren ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera adarraren eskuratzailea ez bada elkartearen parte, jarduteko erabateko gaitasuna izan beharko du, ezingo da egon kontratatzea debekatuta dagoen egoeraren batean, eta dagozkion kaudimen eta gaitasuna izan beharko ditu.

Baldin eta kontratazio mahaiak edo kontratazio organoak aldi baterako enpresa elkarte baten barruko enpresen artean kolusioa dagoen aztarnarik ikusten badu bere funtzioak bete bitartean, hamar egun baliodunean elkartuta aurkezteko arrazoiak berariaz eman ditzatela errekerituko die enpresei, eta, baldin eta enpresen justifikazioa ikusita enpresen artean kolusioa dagoen aztarna sendoak ikusten baditu, Lehiaren Euskal Agintaritzari helaraziko dizkio, SPKLren 150.1 artikuluaren hirugarren paragrafoak arautzen duen prozedura sumarisimoa tramitatu eta iritzia eman dezan.

Behin kontratua aldi baterako enpresa elkartearekin formalizatuta, SPKLren 69.9 artikulua aplikatuko da.

13.6. Baldin eta prozedura tramitatu bitartean eta kontratua esleitu aurretik lizitatzailearen nortasun juridikoa azkentzen bada lizitatzailea fusionatu edo zatitzeagatik edo haren ondarea eskualdatzeagatik, sozietate xurgatzailea, fusioaren ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera adarraren eskuratzailea izango da lizitatzailearen ondorengoa prozeduran, betiere jarduteko gaitasuna badu,

kontratatzea debekatuta dagoen egoeraren batean ez badago eta plegu honek lizitazioan parte hartzeko finkatzen duen kaudimen ekonomiko, tekniko edo profesionala akreditatzen badu. Baldin eta kontratua egokitzen zaion entitateak ez balditu betetzen beharrezkoak diren kaudimen baldintzak eta hori dela-eta ezin bada egin subrogaziorik, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazitakotzat hartuko da ondorio guztietarako.

14. GAITASUN ETA KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALAREN ETA KAUDIMEN EKONOMIKO FINANTZARIOAREN INGURUKO ZIRKUNSTANTZIAK

14.1. SPKLren 74. artikuluak dioenez, "sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateko, enpresaburuek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte kontratazio organoak ezarritako ekonomia eta finantza kaudimenari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez".

14.2. Lizitatzaileek eskakizun hauek betetzen dituztela egiaztatuta akreditatu beharko dute beren kaudimena:

Kaudimen ekonomiko finantzarioa

Horretarako, bitarteko hauek erabili beharko dira:

1. Eskaintzak aurkeztu aurreko azken hiru ekitaldietatik onenean, betiere enpresaren eratze data edo jardunean hasteko data kontuan izanda, 61.983,47 euro edo gehiago izatea kontratuaren esparruko urteko negozio bolumena.

Urteko negozio bolumena akreditatzeko, enpresaburua Merkataritza Erregistroan inskribatuta badago, onartu eta Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak erabiliko dira, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario liburuak eta urteko kontuak erabiliko dituzte.

Kaudimen tekniko edo profesionala

Enpresa lizitatzaileak gutxienez kontratuaren xedearen izaera bereko edo antzeko hiru zerbitzu edo lan egin behar izan ditu azken hiru urteetan, gehienez ere.

Horretarako, bitarteko hauek erabili beharko dira:

1. Azken hiru urteetan, gehienez ere, kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko da; hartzailea subjektu pribatu bat denean, subjektu pribatu horrek emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren deklarazio baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoaria.

Gutxieneko kaudimen-baldintza gisa, esleipendunak hiru erakunderen exekuzio egokiaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, baldin eta enpresa lizitatzaileak Etxebizitza Azterlanen idazketan lan egin badie, kontratuaren xedea den bezala.

14.3. Aldi baterako enpresa elkarteen kaudimen ekonomiko finantzarioa eta tekniko edo profesionala zehazteko, enpresa elkarteko partaide bakoitzak akreditatzen dituen ezaugarri guztiak hartuko dira kontuan.

14.4. Kontratatzeko gaitasunaren, kaudimenaren eta debekurik ezaren inguruko eskakizunak eskaintzak aurkezteko muga egunerako bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

15. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK

Parte hartzeko eskaera eta proposamena aurkezteak honako hauek dakartza berekin:

- Plegu honen, baldintza teknikoen pleguaren eta kontratuaren barruko gainontzeko dokumentuen klausulak onartzea, baldintzarik gabe, beren osotasunean eta salbuespen edo erreserbarik gabe
- Noren erantzukizunpean adieraztea aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta kontratatzen diren zerbitzuak kontratatzeko baldintza guztiak betetzen direla
- Kontratazio mahaiari eta kontratazio organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kide diren estatuetako operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasota dauden datuak kontsultatzeko

Eskaintzak aurkezteko epearen barruan, IRUNVIk kontratua non bete beharko den azalduko dio galdetzen dion enpresa orori, eta dokumentazioari eta aplikatuko den araudiari buruzko informazioa emango dio. Beraz, ezingo da alegatu ez direla ezagutzen lanak egiteko tokia, lanen zirkunstantziak, kontratuaren baldintzak, kontratua osatzen duten eranskinak eta aplikatu beharreko lege edo arauak; argudio horrek ez du salbuetsiko haiek betetzetik.

Zuzenean edo zeharka (beraiekin lotura duten enpresen bidez) kontratuaren zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak osatzen edo kontratazio prozeduraren prestaketan kontratazio organoari aholku ematen esku hartu duten enpresek ezingo dute parte hartu prozedura honetan, betiere esku hartze horrek lehia faltsutu badezake edo gainontzeko enpresa lizitatzaileen aldean tratu pribilegiatua izatea ekar badezake.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du, eta, bakarka aurkezten bada, ezingo du sinatu beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa elkarte bat osatzeko proposamenik. Ez badira betetzen arau horiek, ez da onartuko enpresak aurkeztutako proposamen bat ere

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

16.1. Lizitazio eta kontratazio elektronikorako sistemak ematen du bidea parte hartzeko proposamen eta eskaerak aurkezteko, dokumentuak bidali eta jasotzeko eta kontratuak sinatzeko, IRUNVIren atari instituzionalean, https://www.irunvi.com/eu/gardentasuna/kontratatzailearen-profila/kontratatzailearen-profila-actual.

Hortaz, parte hartzeko proposamen eta eskaerak aurkezteko, lizitatzaileak edo beronen ordezkariak sistema hori erabili beharko du, **I. eranskinak** dakartzan argibideei jarraikiz, proposamenak aurkezteko muga egunera bitartean –muga eguna ez bada balioduna, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea–.

16.2. Behin dokumentazioa aurkeztuta, ezingo da erretiratu. Bestalde, baldin eta proposamenak osatzen dituzten artxibo elektronikoek beste dokumentazio bat badakarte plegu honek artxibo elektroniko bakoitzerako finkatzen duenetik kanpo, ez dira onartuko.

16.3. Proposamenak aurkezteko epea hamabost (15) egun natural izango da, eta kontratua lizitatzeko iragarkia IRUNVIren kontratazio plataforman argitaratu eta biharamunean hasiko da.

16.4. Lizitatzaileek zehaztu beharko dute eskaintza osatzen duten zer dokumentu edo dokumentu zati eta zer datu diren konfidentzialak: ezingo dituzte eskaintza osatzen duten dokumentu eta datu guztiak deklaratu konfidentzial. Gainera, dokumentu konfidentzialetan bertan adierazi beharko dute dokumentuak konfidentzialak direla, argi eta garbi (konfidentzialtasuna dokumentuen gainean edo bazterrean esplizitatuta edo erraz identifikatzeko beste edozein modutan adierazita), eta dokumentuak

konfidentzialtzat hartu behar izateko arrazoiak ere azaldu beharko dituzte. Lizitatzaileek berariaz konfidentzial deklaratzen ez dituzten dokumentuak ez dira hartuko konfidentzialtzat.

16.5. Ez bada aurkezten parte hartzeko baldintzak betetzen direlako erantzukizunpeko adierazpenik edo aurkezten dena ez badago behar bezala beteta, kontratazio organoaren edo kontratazio mahaiaren menpeko zerbitzuek zuzendu dezatela errekerituko diete lizitatzaileei. Esleipendun izateko proposatua denak kontratua esleitu aurretik egin ahalko ditu dagozkion zuzenketak.

Kasu batean zein bestean, hiru egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaileari, errekerimendua jaso eta biharamunetik.

Epe horren barruan ez badira egiten dagozkion zuzenketak, kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak ondorioztatuko du lizitatzaileak eskaintzan atzera egiten duela.

16.6. Proposamena **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko da, eta, artxibo bakoitzaren barruan, aparteko fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakituta, APKLEOren 80.1 artikuluarekin bat etorriz.

1. ARTXIBO ELEKTRONIKOA – DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

1. Dokumentazio administratiboa

a) Europako kontratazio agiri bakarra. SPKLren 140. eta 141. artikuluekin bat etorriz, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, **II. eranskinak** dakartzan argibideei jarraikiz egina eta lizitatzaileak edo beronen ordezkariak sinatua, eranskin horretako formulario ereduaren araberakoa.

   Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuetara jotzen badu haien kaudimena eta baliabideak erabiltzeko, entitate bakoitzeko agiri bat aurkeztu beharko du.

b) Honela badagokio, aldi baterako enpresa elkarte bat eratzeko konpromisoa –plegu honen **III. eranskinak** dakar eredua–. Bi enpresak edo gehiagok aldi baterako enpresa elkarte bat eratuta parte hartzen badute lizitazioan, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, honako hauek jasotzen dituena, SPKLren 69. artikuluarekin eta APKLEOren 24. artikuluarekin bat etorriz: proposamena sinatzen duten enpresen izenak eta zirkunstantziak, bakoitzaren partaidetza eta esleipendun gertatzen badira aldi baterako enpresa elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa. Elkartea osatzen duen enpresa bakoitzeko ordezkariek sinatu beharko dute dokumentu hori. Gainera, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak bere Europako kontratazio agiri bakarra aurkeztu beharko du.

c) Enpresa lizitatzailea enpresa talde bateko partaide bada, berariazko erantzukizunpeko adierazpen bat, taldeko sozietate guztiak hartzen dituena barruan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren arabera, eta, enpresa talde bakar batean ere ez badago, hori dioen adierazpena –**IV. eranskinak** dakar–.

d) Konfidentzialtzat jotzen diren dokumentu eta datuei buruzko adierazpena –**V. eranskinak** dakar–. Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute aurkezten dituzten zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu hartu behar diren konfidentzialtzat haien ustez, eta, gainera, dokumentu konfidentzialetan bertan adierazi beharko dute dokumentuak konfidentzialak direla, konfidentzialtasuna dokumentuen gainean edo bazterrean esplizitatuta edo beste edozein modutan adierazita; alde horretatik, aurkezten diren dokumentu eta datuak konfidentzialtzat hartzeko, enpresa lizitatzaileen merkataritza interes legitimoen aurkakoa izan beharko du haiek hirugarren pertsona edo entitateei zabaltzeak, edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin. Ez bada aurkezten adierazpena, ondorioztatuko da dokumentu edo datu bakar bat ere ez dela konfidentziala.

e) Atzerriko lizitatzaileek, a) ataleko erantzukizunpeko adierazpenaz gain, dokumentazio espezifiko hau:

Espainiarrak ez diren enpresak

- Kontratutik zuzenean edo zeharka sortzen diren intzidentzia guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako eta atzerrian dagokien jurisdikzio foruari uko egiten diotelako adierazpena, SPKLren 140.1.f) artikuluaren arabera

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako enpresak eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetakoak

- Enpresak non duen egoitza, Espainiak bertan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren edo Kontsuletxeko Bulegoaren txosten bat, enpresa tokiko erregistro profesional edo komertzialean edo kideko batean inskribatuta dagoela dioena –aurrez, inskripzioa akreditatu beharko du enpresak–, edo, bestela, kontratuaren xede diren jardueren esparruan tokiko trafikoan jardun ohi dela.
- SPKLren 68. artikuluak aipatzen duen elkarrekikotasun txostena, salbu eta kontratua erregulazio harmonizatukoa bada; kasu horretan, Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzarako Idazkaritza Nagusiaren txosten bat aurkeztuko da, enpresaren egoitza Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu batean dagoela dioena, eta enpresa esleipendunak sukurtsal bat ireki beharko du Espainian, bere eragiketetarako ahaldun eta ordezkariak izendatu, eta berauek Merkataritza Erregistroan inskribatu.

f) Langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboari buruzko adierazpena –**VI. eranskinak** dakar–. Kontratatzen diren zerbitzuak emango dituzten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zein den aipatzeaz gain, lizitatzaileak adierazi beharko du sektoriala ala enpresakoa den, eta, enpresakoa bada, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko litzatekeen enpresako hitzarmenik existituko ez balitz.

Baldin eta kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraren edo fidagarritasunaren inguruan edo beharrezkoa bada prozedura behar bezala aurrera eramateko, frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahalko die hautagai edo lizitatzaileei, betiere kontratua esleitu aurretik.

Hala eta guztiz ere, enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko datu base nazional batean agertzen bada (hala nola espediente birtual batean, dokumentuak biltegiratzeko sistema elektroniko batean edo aurrekalifikazio sistema batean) eta kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak doan eskuratu baditzake datuak, enpresak ez du aurkeztu beharko haietan inskribatutako datuen frogagiririk.

Aurreko atalek kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruz xedatzen dituzten eskakizunak eskaintzak aurkezteko muga egunerako bete beharko dira, eta kontratua burutzean ere iraun beharko dute.

2. ARTXIBO ELEKTRONIKOA – BALIO JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Artxibo honen barruan, plegu honen 19. klausularen arabera balio judizio bidez baloratu beharreko esleipen irizpideen inguruko dokumentazioa sartuko dute lizitatzaileek.

2. artxibo elektronikoak inolaz ere ez du hartuko barruan eskaintza ekonomikoari buruzko dokumentazio edo aipamenik, ez 3. artxibo elektronikoari dagozkion balorazio irizpideei buruzkorik (automatikoki ebaluatu beharreko irizpideei buruzkoa); bestela, lizitatzailea prozeduratik kanpo geratuko da.

3. ARTXIBO ELEKTRONIKOA – PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUTA EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA

Artxibo honen barruan, proposamen ekonomikoa deskribatzeko dokumentazioa eta plegu honen 19. klausulako formulak aplikatuta ebaluatu beharreko esleipen irizpideei dagokiena sartuko dute lizitatzaileek.

17. ESKAINTZAREN BALIOAK ANORMAL EDO NEURRIGABETZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

Urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 85. artikuluaren arabera interpretatuko da eskaintzak anormalak edo neurrigabeak diren.

Behin justifikazioak jasota, mahaiak txosten tekniko bat eskatuko du, xehe aztertzeko lizitatzaileak bere eskaintzari eusteko argudiatzen dituen arrazoiak.

Behin neurrigabetzat hartzen diren eskaintzak egin dituzten kontratisten justifikazioak eta haiek aztertzeko txosten teknikoa ikusita, kontratazio mahaiak haiek onartzea edo baztertzea proposatuko dio kontratazio organoari, betiere proposamena arrazoituta. Eskaintzak baloratzean, neurrigabe edo anormaltzat hartzen direnak ez dira hartuko kontuan harik eta SPKLren 149. artikuluak arautzen duen prozedura aplikatzen den arte.

SPKLren 107.2 artikuluaren arabera, esleipendunaren eskaintza ustez anormaltzat hartzen bada hasiera batean, eskaintzen duen azken prezioaren % 10 izango da ezarri beharreko guztizko bermea.

18. PROPOSAMENEN IREKIERA ETA AZTERKETA

18.1. Kontratazio mahai bat eratuko da, plegu honen 11. klausulak arautzen duen bezala osatua, jasotzen diren proposamenak aztertzeko.

18.2. Kontratazio mahaiak, kontratatzailearen profilean argitaratzen den lekuan, egunean eta orduan –informazioa 48 ordu lehenago argitaratuko da gutxienez–, 1. artxibo elektronikoa ireki eta barruko dokumentazioa egiaztatuko du; alegia, kontratu hau egiteko eskakizunak betetzeari buruzkoa.

Mahaiak forma akatsak edo akats materialak sumatzen baditu aurkeztutako dokumentazio administratiboan, interesdunei jakinaraziko die, posta elektroniko bidez, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango die okerra zuzen dezaten.

Behin kontratazio mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako dokumentu administratiboak egiaztatuta eta behin lizitatzaileek akats eta omisioak zuzenduta, lizitaziorako zer enpresa onartu diren erabakiko du kontratazio mahaiak, eta, berariaz, baztertutakoak eta berauek baztertzeko arrazoiak aipatuko ditu.

Mahaiak uste badu lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazio administratiboak ez duela inolako zuzenketarik behar, 2. artxibo elektronikoak irekiko ditu (balio judizio bidez baloratu beharreko dokumentazioa); bestela, aurreko paragrafoaren arabera jokatuko da, eta IRUNVIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da 2. artxibo elektronikoak irekitzeko ekitaldiaren lekua, eguna eta ordua. Behin 2. artxibo elektronikoak irekita, artxibo horiek baloratzeko ardura duen organoari helaraziko zaio haien barruko dokumentazioa.

IRUNVIren kontratatzailearen profilak dioen lekuan, egunean eta orduan, kontratazio mahaiak 3. artxibo elektronikoak irekiko ditu, jendaurrean: prozeduran parte hartzeko onartutako enpresa lizitatzaileen proposamen ekonomikoak eta formula bidez ebaluatu beharreko gainontzeko irizpideei dagokien dokumentazioa.

Ekitaldi horretan, 3. artxibo elektronikoak ireki aurretik, jakinaraziko da zer enpresa onartu eta baztertu diren lizitaziorako 1. artxibo elektronikoetako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu ondoren, eta 2. artxibo elektronikoetako proposamenen alderdi teknikoen balorazioa irakurriko da.

18.3. Proposamenen bat ez badator bat aztertu eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazio tasa gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badakar zenbatekoari dagokionez edo lizitatzaileak onartzen badu bideraezin bihurtzen duen akats edo hutsen bat dakarrela, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, betiere ebazpena arrazoituta, APKLEOren 84. artikuluarekin bat etorriz.

Bereziki, kanpoan geratuko dira eskaintza hauek: formulak aplikatuta ebaluatu beharreko irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko artxibo elektroniko batean ez dakartenak.

18.4. Kontratazio mahaiak plegu honen 19. klausulak finkatzen dituen irizpideen arabera ebaluatuko ditu proposamenak –garrantzitsu eta baliotsuenetik hasita daude ordenatuta–, eta, horretarako, egokitzat dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu. Gero, kontratazio organoari egingo dio egokitzat duen proposamena.

Ustez baxuegia bada puntuaziorik onena lortzen duen lizitatzailearen eskaintza, 17. klausularen arabera, SPKLren 149. artikuluak arautzen duen prozedura aplikatuko da.

Berdinketarik badago bi eskaintzaren edo gehiagoren artean, berdinketa hausteko, SPKLren 147.2 artikuluak aipatzen dituen irizpide sozialak aplikatuko dira, ordena berean, betiere eskaintzak aurkezteko muga eguna kontuan izanda.

19. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren balorazio irizpideak eta bakoitzaren haztapena:

- Balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideak (2. artxibo elektronikoa)
- Proposamen ekonomikoa eta formulak aplikatuta automatikoki ebaluatu beharreko irizpideak (3. artxibo elektronikoa)

19.1. Aipatutako irizpideetatik, balio-judizio baten mende daudenak eta automatikoki balioesteko irizpideen aurretik balioetsiko direnak honako hauek dira (Guztira: 48 puntu):

Azalpen oroitidazkia (48 puntu)

Honako hauek baloratuko dira:

Eskaintza teknikorik onena **(gehienez ere, 48 puntu)**

1. Azterketaren helburuak eta planteamendua (% 42 ere: **(20 puntu gehienez ere)**

   a) Helburuei dagokienez, gehienez ere 20 puntu emango zaizkio proiektuaren bidez aztertu beharreko gai nagusien, hartu beharreko neurrien eta kontratuaren xedearen zehaztapenari –baldintza teknikoen pleguaren arabera baloratuko dira proiektuaren bidez aztertu beharreko gai nagusiak eta hartu beharreko neurriak– eta Elkarteari datuak aldizka eguneratzeko metodo baten eskaintzeari.

   b) Azterketaren planteamenduari dagokionez, gehienez ere 20 puntu emango zaizkio azterketaren helburuak lortze aldera berauek eta azterketaren planteamendua xeheki azaltzeari.

2. Lanerako plana eta metodologia (% 58 ere: **(28 puntu gehienez ere)**

   Azterketaren helburuak lortzeko proposatzen diren teknika eta neurriak eta lanak egiteko prozesu eta zereginen optimizazioa baloratuko dira, baita metodologiak egoera ahalik eta hobekien islatzea bermatzeko modukoak izatea ere.

Gehienezko luzapena 45 orrialdekoa izango da (erreferentzia: DIN A-4, Arial 10 edo tipografia baliokidea), testuaren gorputzerako. Marjinak 2,5 cm-koak izango dira alde guztietan, eta paragrafoen artean, gutxienez, testuaren gorputzean erabilitako letraren tamainari dagokion tartea utzi beharko da.

19.2. Balioespen automatikoko irizpideak eta horiek balioesteko erabiliko diren formulak honako hauek dira (Guztira: 52 puntu):

a) Preziorik behereena (52 puntu)

Balorazioa egitean, eskaintzarik onenari puntuaziorik handiena emango zaio, betiere hobekuntza hauek badakartza onartutako eskaintzen aldean:

- Lizitatzaile bakarra badago, lizitazio tasa % 10 hobetzea gutxienez
- Bi lizitatzaile badaude, eskaintza batek bestea % 40 hobetzea gutxienez
- Hiru lizitatzaile edo gehiago badaude, onartutako eskaintzen batezbestekoa % 40 hobetzea gutxienez, eskaintzarik onena eta okerrena alde batera utzita

Eskaintzarik onena zehazteko, kondizio horietan ateratzen den balio erreala edo teorikoa hartuko da kontuan.

Gainontzeko eskaintzak proportzioan puntuatuko dira, formula matematiko honen arabera –eskaintza lizitazio tasaren berdina bada, zero puntu emango zaizkio–:

$$P_n = P_{\max} \times \frac{TL - V_n}{TL - V_{\min}}$$

non
P_n eskaintzaren puntuazioa den,
P_{max} irizpide honi jarraikiz eman daitekeen puntuaziorik handiena den,
TL lizitazio tasa den,
V_n eskaintzaren balioa den irizpide honi dagokionez,
eta V_{min} IRUNVIrentzako baliorik onena den (aipatutako kondizioetan onartutako eskaintzen batezbestekoa aipatutako ehunekoetan hobetzen duen eskaintza erreala edo teorikoa).

Lizitatzaileak aurkezten duen eskaintzak barruan hartuko du lizitatzen diren zerbitzuak emateko kontratuaren balioa (prezioa), eurotan (zifratan eta letratan), jasanarazi beharreko BEZari dagokion partida bereizita, plegu honen **VIII. eranskinak** dakarren ereduari jarraikiz.

Eskaintzen diren prezioek barruan hartuko dituzte nolanahiko zergak (Europar Batasunekoak, Estatukoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, foralak eta tokikoak), BEZa izan ezik, haren zenbatekoa bereiz adieraziko baita, ereduari jarraikiz.

Prezioa desberdina bada letratan eta zifratan, eskaintza ekonomikoak kanpoan gelditukо dira.

Kontratazio mahaiak kanpoan utziko ditu eskaintza hauek, betiere ebazpena arrazoituta:

- Aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak

- Eskaintza onartzeko funtsezkotzat jotzen dena argi ulertzea galarazteko moduko omisio edo akatsak dakartzatenak edo eskaintza onartzeko funtsezkotzat jotzen dena argi ulertzea galarazteko moduan marratuta daudenak
- Ereduaren aldean nabarmen desberdinak direnak
- Proposamenaren zenbatekoari dagokionez ageriko okerra dakartenak
- Bideraezin bihurtzen dituen oker edo hutsen bat dakartenak, lizitatzaileak berak onartzen duena

20. ESLEIPEN PROPOSAMENA

Behin proposamenak haztatuta, kontratazio mahaiak beheranzko ordenan sailkatuko ditu, eta puntuaziorik handieneko hautagaiaren aldeko esleipen proposamena egin eta kontratazio organoari helaraziko dio.

SPKLren 139.1 artikuluak dioenez, "proposamenak aurkezteak berekin dakar (...) mahaiari eta kontratazio organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko".

Esleipen proposamenak ez du ekarriko proposatzen den lizitatzaileak inongo eskubiderik izatea IRUNVIren aurrean.

21. KONTRATATZEKO GAITASUNAREN AKREDITAZIOA

Jakinarazpen elektroniko bidez, mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari errekerituko dio behin betiko bermea ezar dezala, SPKLren 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa bete dezala baldin eta kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzekoa bada eta lege testu horren 76.2 artikuluaren arabera kontratua betetzeko jarri edo adskribatu behar dituen baliabideak badituelako frogagiriak aurkez ditzala jakinarazpena bidali eta hamar egun baliodunean.

SPKLren 96. artikuluaren arabera, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek, betiere inskripzio ziurtagiria indarrean badago, ez dute aurkeztu beharko ziurtagiriak jasotzen dituen datuei dagokien dokumentazioa; zehazki, "kontrako frogarik ez badago (...),honako hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, enpresa edo lanbide gaikuntza, ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala, sailkapena eta inskribatutako gainerako inguruabarrak, eta, orobat, kontratatzeko eta erregistroan jaso beharreko debekuren batek eragiten ote dion". Alabaina, ziurtagiri horrek ez badu jasotzen klausula honek aipatzen duen dokumenturen bat, aurkeztu egin beharko dute, hala nola IRUNVIk espezifikoki eskatzen duena.

Gainera, baldin eta enpresak (edo aldi baterako enpresa elkartea osatzen duten enpresek) ez badu Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta egoteko eginbeharra edo datu edo dokumenturen bat ez badago Erregistroan inskribatuta, mahaiak eskatuko dio epe horretan bertan dokumentazio hau aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasunaren egiaztagiriak

   - Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratze edo aldaketa eskritura, Merkataritza Erregistroan inskribatua beharrezkoa bada eta, beharrezkoa ez bada, bere jarduna arautzeko eratze dokumentua, estatutuak edo sortze egintza, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta –pertsona juridikoak esleipendun izango badira, ezinbestean, haien estatutuek edo sorrera arauek barruan hartu beharko dituzte kontratuen prestazioak, berezkoak dituzten helburuen eta jarduera esparruaren barruan, eta aurkezten den dokumentazioaren bidez egiaztatu beharko da hori–
   - Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo harena egiten duena

b) Eskaintzaren sinatzaileak beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten badu, ordezkaritzaren egiaztagiria
c) Enpresak zerga arloko eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituelako frogagiriak
d) Enpresa unean uneko ekitaldian jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan alta emanda dagoelako ziurtagiria eta azken ordainagiria, zergaren matrikulan baja eman ez duelako erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, edo zerga ordaintzeko salbuetsita dagoelako erantzukizunpeko adierazpena
e) Behin betiko bermea ezarri delako frogagiria
f) Atzerriko lizitatzaileek, kontratutik zuzenean edo zeharka sortzen diren intzidentzia guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako eta atzerrian dagokien jurisdikzio foruari berariaz uko egiten diotelako adierazpena
g) Kontratatzeko kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoaren akreditazioa, eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera (plegu honen 14. klausulak aipatzen duen dokumentazioa)

Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati esleitzen bazaio, eskritura publiko bidez eratu izana egiaztatu beharko du, eta elkarteari esleitu zaion IFZ aurkeztu, behin kontratua esleituta. Elkarteak kontratu azkendu arte iraun beharko du.

Baldin eta Europar Batasuneko kide diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburu atzerritarrak aurkezten badira lizitaziora, kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza akreditatzeko, dagokion estatuko operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofiziala kontsultatuko da, edo dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

Dokumentu horien guztien jatorrizkoak aurkeztu ahalko dira, kopia autentiko edo konpultsatuak, edo fotokopia soilak. Fotokopia soilak aurkezten baditu, eskaintza ekonomikorik onena aurkezten duen lizitatzaileak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu kontratua esleitu aurretik.

Dokumentazioan konpontzeko moduko akats edo omisiorik ikusten bada, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta gehienez ere hiru egun baliodun emango zaizkio kontratazio mahaiaren aurrean zuzendu dezan.

Lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dauden enpresa lizitatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko a), b) eta g) atalek aipatzen duten dokumentazioa; alegia, kaudimenari eta gaitasunari dagokienez ziurtagiriaren bidez akredita daitezkeen zirkunstantziei dagokiena.

Dagokion epean lizitatzaileek ez badute aurkezten dagokion dokumentazioa edo ez badute zuzentzen, edo aurkezten duten dokumentazioa aztertu eta egiaztatzen bada ez dituztela betetzen plegu honek finkatzen dituen eskakizunak, ondorioztatuko da eskaintza erretiratzen dutela eta kontratua ezin zaiela esleitu; gainera, SPKLren 71.2.a) artikuluak kontratatzea debekatzen duen egoeran egongo dira, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaie, BEZik gabe, zigor gisa. Kasu horietan, kontratazio mahaiak kontratua sailkapeneko hurrengo lizitatzaileari esleitzea proposatuko dio kontratazio organoari –aurrez, IRUNVIrekin kontratatzeko gaitasuna akreditatu beharko du sailkapeneko hurrengo lizitatzaileak, dagokion epean dagokion dokumentazioa aurkeztuta–.

22. BEHIN BETIKO BERMEA

22.1. SPKLren 145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak esleipen prezioaren % 5eko behin betiko bermea ezarri beharko du, BEZa kanpo.

Berme hori ezartzeko epea aurreko klausulak aipatzen duen jakinarazpena bidali eta hamar egun baliodun izango da.

Behin kontratua beteta eta plegu honek ezartzen duen bermealdia bukatuta, bermea itzultzeko eskatu ahalko du esleipendunak.

SPKLren 108. artikuluak onartzen duen edozein modutan ezarri ahalko dira bermeak (eskudirutan, zor publikoaren baloreetan, abal bidez edo aseguru kauzio bidez), indarrean dagoen legediak baimentzen dituen kondizioetan.

22.2. SPKLren 149.7 artikuluak arautzen duen kasuan, aurreko klausulak aipatzen duen behin betiko bermeaz gain, kontratuaren esleipen prezioaren % 5eko berme osagarria ezarri beharko du esleipendunak, behin betiko bermea ezartzeko epe eta baldintza beretan.

23. KONTRATUAREN ESLEIPENA

23.1. Behin betiko bermea ezarri eta dagokion dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio organoak gastu konpromisoa fiskalizatu eta kontratua esleituko du, dokumentazioa jaso eta bost egun baliodunean.

23.2. Esleipena arrazoitua izango da, hautagai edo lizitatzaileei bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, IRUNVIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, hamabost egunean.

23.3. Kontratazio organoak kontratua ez lizitatzea erabaki ahalko du, kontratazio mahaiaren proposamenari jarraikiz, baldin eta pleguak finkatzen dituen irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik ez badago.

23.4. Kontratazio organoak esleipen prozeduran atzera egiten badu edo kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen badu, hautagai edo lizitatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabakia.

Kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko du kontratua ez esleitzea edo egitea edo prozeduran atzera egitea. Kasu batean zein bestean, konpentsazioa emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren lizitatzaileei, behar bezala justifikatzen dituzten gastuetan edo, bestela, administrazioaren ondarezko erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideen arabera, administrazio prozedura erkidearen berezko tramiteen bidez.

Espedienteak behar bezala justifikatzen dituen interes publikoko arrazoiengatik bakarrik erabaki ahalko da kontratua ez esleitzea edo egitea. eta, kasu horretan, ezingo da xede bera duen beste lizitaziorik sustatu erabakia oinarritzeko alegatzen diren arrazoiek bere horretan irauten duten bitartean.

Prozeduran atzera egiteko, beharrezkoa izango da kontratua prestatzeko edo esleipen prozedura erregulatzeko arauak ezin zuzenduzko moduan urratu izana, eta espedienteak hori justifikatu beharko du. Prozeduran atzera eginda ere, beste lizitazio prozedura bat hasi ahalko da, berehala.

23.5. Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zer epetan formalizatu behar den kontratua, SPKLren 153.3 artikuluari jarraikiz.

23.6. Kontratua esleitzeko gehieneko epea bi hilabete izango da, eta proposamenak ireki eta hurrengo hilabetean hasiko da. Kontratua esleitzeko erabakia ez bada hartzen epe horretan, lizitatzaileek eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute.

23.7 Aurkezten diren proposamenak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) beren espedientean artxibatuko dira, eta, behin kontratua esleituta eta errekurtsoak aurkezteko epea igarota ez bada aurkeztu errekurtsorik, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa enpresa interesdunen eskura geratuko da.

Enpresa lizitatzaileek ez badute urtebetean eskatzen, dokumentazioa suntsitu ahalko da.

24. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

24.1. Kontratua formalizatzeko epea hamabost egun baliodun izango da, eta esleipena jakinarazi eta biharamunean hasiko da. Formalizazioa SPKLren 154. artikuluak arautzen duen moduan argitaratuko da.

24.2. Kontratua formalizatzeko dokumentuak lizitazioaren kondizioak bete beharko ditu, zehazki bete ere: inolaz ere ezingo da sartu esleipenaren kondizioak aldatzea dakarren klausularik.

Kontratua formalizatzeko dokumentua edozein erregistro publikotan sartzeko nahikoa titulu izango da. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahalko du kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira notarioak hura protokoloan jasotzeko gastuak.

Kontratua formalizazioarekin batera burutuko da, eta inolaz ere ezingo da hura betetzen hasi formalizatu aurretik.

24.3. Baldin eta kontratua ez bada dagokion epean formalizatzen enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, IRUNVIk lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko dio, BEZik gabe, zigor gisa, eta zenbateko hori, lehenengo, behin betiko bermearekin ordainduko da, SPKLren 71.2.b) artikuluak dioenari kalte egin gabe.

Kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo eskaintza egin duen enpresa lizitatzaileari esleituko zaio kontratua –aurrez, plegu honen 21. klausulak aipatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du–, eta aurreko ataletan ezarritako epeak aplikatuko dira.

Kontratua dagokion epean ez formalizatzeko arrazoiak IRUNVIri egotz badakizkioke, berriz, atzerapenak eragiten dizkion kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

25. KONTRATUAREN BETETZEA

25.1. Arrisku eta menturaren printzipioa.

Kontratista esleipendunak hartuko du bere gain kontratua betetzeko arrisku eta mentura.

25.2. Gauzatzea eta kontratistaren erantzukizuna.

Kontratuaren betetzeari eta kontratistaren erantzukizunari dagokienez, kontratuaren beraren klausulen, plegu honen, baldintza teknikoen pleguaren eta kontratuaren barruko gainontzeko dokumentuen arabera beteko da kontratua.

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, eta, era berean, berea izango da erantzukizuna IRUNVIk edo hirugarrenen batek kalterik jasaten badu kontratua betetzean huts edo okerrak egiteagatik, metodo ezegokiak erabiltzeagatik edo ondorio okerrak ateratzeagatik. Ildo horretatik, bere kontura izango da hirugarrenei eragiten zaizkien kalteen ordaina.

Esleipenduna ustezko anormaltasun egoeran egon bada, kontratazio organoak kontratua betearazteko jarraipen xehatua egiteko dagozkion mekanismoak ezarriko ditu, kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko, betiere kontratatzen diren zerbitzu, obra edo hornigaien kalitateari kalte egin gabe.

25.3. Ezunbesteko kasuetan.

Ezinbesteko kasuetan, enpresa kontratistak jasaten dituen kalte-galeren ordaina jaso ahalko du, betiere ez badu zuhurtziagabekeriaz jokatu.

Alde horretatik, SPKLren 239. artikuluak aipatzen dituenak hartuko dira ezinbesteko kasutzat, eta APKLEOren 146. artikuluaren arabera tramitatuko dira.

25.4. Kalte-galerak

Kontratuaren parte bat betetzen ez bada, kontratua oker betetzen bada edo enpresa kontratista kontratua betetzen atzeratzen bada eta ez bada zigorrik aurreikusi edo aurreikusitako zigorrak ez baditu estaltzen IRUNVIri eragindako kalteak, IRUNVIk kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

25.5. Enpresa kontratistari egindako ordainketak.

Kontratuaren prezioa kobrantza-agiriak aurkeztu eta onartu ondoren ordainduko da.

- prezioaren % 30 kontratua sinatzean ordainduko da.
- Gainerako % 70a, Irunviko Administrazio Kontseiluak txostena onartu ondoren. Kontratuaren xede den etxebizitzaren azterlanaren behin betiko dokumentua jaso da.

25.6. Ingurumen, gizarte eta lan arloko gaietan, enpresa kontratistak indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu: Europar Batasuneko zuzenbidea, Estatukoa, hitzarmen kolektiboak, Estatua lotesten duten ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko xedapenak eta, bereziki, SPKLren V. eranskina.

Bereziki, zehaztapen hauek aplikatuko dira:

- Kontratistak lan arloko legeek ezartzen dituzten eginbeharrak bete beharko ditu. Gizarte eta istripu aseguruen eta mutualitateen kuoten eta lan arloko gainontzekoen ordainketa egunean izan beharko du, eta, bereziki, aplikatuko duen hitzarmen kolektiboaren edo berau berrikusteko hitzarmenen azken testuaren araberako lan baldintzak aplikatu beharko ditu. Berak izango du eginbehar horiek ez betetzeagatiko erantzukizun guztia. Lan arloko eginbeharrak betetzen dituelako egiaztagiriak aurkez ditzala errekeritu ahalko diote zerbitzu teknikoek, eta kontratistak errekerimendua bete beharko du, ezinbestean. Bereziki, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa edo berau berrikusteko hitzarmenak aplikatu beharko dituzte enpresa esleipendunak eta azpikontratazio kateko enpresa guztiek, kontratua betetzeko adskribatzen diren langileen soldatari dagokionez bereziki. Ondorio horietarako, SPKLren 202. artikuluarekin bat etorriz, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde mailakoak betetzea kontratuaren funtsezko eginbehartzat hartuko da.

- IRUNVIk inolaz ere ez du hartuko bere gain inolako lan harremanik edo erantzukizunik kontratistak kontratua betetzeko jartzen dituen langileekin.

- Kontratistak soilik izango du pleguek titulazioari eta esperientziari dagokienez finkatzen dituzten eskakizunak betetzen dituztenen artetik kontratua betetzeko adskribatuko den lantaldeko kideak aukeratzeko ardura, baina langileek eskakizun horiek betetzen dituztela egiaztatu ahalko du IRUNVIk.

- Lantaldea egonkorra izan dadin saiatuko da enpresa kontratista, eta lantaldearen osaeraren aldaketak puntualak eta arrazoi justifikatuen ondoriozkoak izan daitezen, lanen funtzionamendu onari kalte ez egiteko, eta, une oro, aldaketei buruzko informazioa emango dio IRUNVIri. Enpresa esleipendunak behar besteko ordezko izan beharko ditu, inolako intzidentziarik gertatuko balitz ere.

- Enpresa kontratistak bere gain hartu beharko du enpresaburu orok kontratua betetzeko adskribatzen den lantaldeko kideak zuzentzeko berezkoa duen ahalmena, praktikan eta

etengabe: bereziki, soldatak negoziatu eta ordaintzea; baimen, lizentzia eta oporrak ematea; baja hartzen duten langileak edo lanera joan ezin direnak ordezkatzea; Gizarte Segurantzarekiko legezko eginbeharrak betetzea (tartean, kotizazio eta prestazioen ordainketa); laneko arriskuei aurrea hartzeko legezko eginbeharrak betetzea; diziplina ahala erabiltzea; eta enplegatzailearen eta enplegatuen arteko kontratuzko harremanetik sortzen diren eskubideak eta eginbeharrak erabili eta betetzea.

Atal honetan jasotako lan arloko **eginbeharrak kontratua betetzeko funtsezko** baldintzak izango dira, SPKLren 202. artikuluaren arabera, eta, ez badira betetzen, plegu honek ezartzen dituen zigorrak jarriko dira.

25.7. Lanen jabetzari..

Kontratuaren edozein fasetan egiten diren lanak IRUNVIrenak izango dira, eta, horrenbestez, IRUNVIk noiznahi eskatu ahalko du prestazioen parte bat entregatzeko, betiere ez badio eragiten kalte lanen martxa zuzenari.

25.8. Oker edo gaizki egindako lanei.

Harik eta plegu honen 25.10 klausulak xedatzen duen bermealdia igaro arte, enpresa kontratistak izango du erantzukizuna kontratatutako lanak ondo egin daitezen, eta bera izango da lanen akatsen erantzulea. Nahiz eta IRUNVIren ordezkariek lanak egiten ari ziren bitartean haiek ikuskatu edo egiaztatu edo nahiz eta haien egiaztapen, balioztapen edo ziurtapen partzialak onartu, ez du inolako eskubiderik izango, eta ez da geratuko erantzukizun horretatik aske.

Alabaina, lan akastunak edo oker egindako lanak IRUNVIk berak emandako agindu baten ondorio zuzena badira, kontratistak ez du inongo erantzukizunik izango.

IRUNVIk irizten badio ez direla bete kontratuaren baldintza teknikoak, APKLEOren 203. artikulua aplikatuko da, eta, ematen diren zerbitzuek ez badituzte betetzen harrera egiteko beharrezkoak diren baldintzak, APKLEOren 204. artikulua eta plegu honen 13.14 klausula.

25.9. Bermealdiari eta zerbitzuaren harrerari.

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanda, ez dago inolakorik.

25.10. Azpikontratazioari.

Kontratuaren esleipendunak eta hirugarrenek kontratuaren parte bat betetzea hitzartu ahalko dute, betiere eskakizun hauek betetzen badira:

a) Azpikontratazioaren aurretik, egitekoa den azpikontratuaren berri eman beharko zaio IRUNVIri, idatziz. Azpikontratistak kontratuaren zer parte beteko dituen adierazi beharko da, zein den haien zenbatekoa, eta nor den azpikontratista, eta, gainera, justifikatu beharko da azpikontratistak baduela kontratua betetzeko kaudimen edo gaitasun nahikoa, eskura dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak eta haren esperientzia aipatuta. IRUNVIk ezingo du azpikontratazio jakin baten aurka egin erabakia arrazoitu gabe, baina, arrazoitzen badu, esleipendunak uko egin beharko dio.
b) Kontratistak inolaz ere ezingo du hitzartu kontratuaren parte bat antolamendu juridikoaren edo SPKLren 71. artikuluaren arabera ezgaitutako pertsonek betetzea, eta, IRUNVIri egitekoa den azpikontratuaren berri emateko jakinarazpenarekin batera, hori bermatzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da.
   Kontratua edo azpikontratua betetzen den bitartean, IRUNVIk noiznahi eskatu ahalko du esleipendunak dokumentazio bidez egiazta dezala eginbehar horiek betetzen dituela, eta, ildo beretik, azpikontratatutako enpresekin egiten dituen kontratuetan, esleipendunak eginbehar horiek betetzen dituztela egiaztatzera behartuko ditu enpresa horiek.

c) Kontratista nagusiak kontratu nagusia betetzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, idatziz, baita azpikontratista berrien inguruan beharrezkoa den informazio guztia ere.
d) Kontratistak azpikontratistei hitzartutako prezioa ordaintzeko epeak eta kondizioak ezingo dira izan okerragoak plegu honek IRUNVIren eta kontratatzailearen arteko harremanetarako finkatzen dituenak baino.
e) Aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen habilitazio eta baimenak izan beharko ditu enpresa azpikontratistak.
IRUNVI kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo da behartuta, eta, beraz, kontratista nagusiak bakarrik izango du erantzukizuna IRUNVIren aurrean azpikontratistek plegu honi eta kontratuaren kondizioei hertsiki jarraikiz bete dezaten kontratua.
f) IRUNVIk egiaztatu ahalko du kontratista esleipendunak zuzen egiten dituela azpikontratistei edo kontratuan parte hartzen duten hornitzaileei egin beharreko ordainketak.
Ildo horretatik, IRUNVIk eskatzen badie, kontratista esleipendunek kontratuan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaileen zerrenda xehea bidaliko dute, haien parte hartzea burutzen denean, bakoitzaren azpikontratazio edo hornikuntza kondizioen barruan ordainketak egiteko epearekin zuzeneko lotura duten kondizioekin batera. baita haiei egindako ordainketen frogagiriak ere.

Baldin eta esleipendun gertatzen den enpresak kontratua betetzen hasten denetik aurreikusten badu kontratatzen diren zerbitzuetakoren bat azpikontratatzea, behin kontratuaren esleipena jakinarazita, hura formalizatu aurretik, honako hauen berri eman beharko dio IRUNVIri: azpikontratista bakoitzak kontratuaren zer parte beteko duen, zein den parte horren zenbatekoa eta nor den azpikontratista bakoitza. Gainera, lehen aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

25.11. Kontratuaren lagapenari.

SPKLren 214. artikulua aplikatuko da; enpresa esleipendunak kontratuaren parte bat hirugarrenekin kontratatzeari dagokionez, SPKLren 215. artikuluak ezartzen dituen eskakizunak; eta enpresa azpikontratista eta hornitzaileei ordaintzeari dagokionez, SPKLren 216. artikulua.

Behin kontratua esleituta, hura betetzen hasten denean beranduen jota ere, enpresa kontratistak azpikontratuak egiteko asmoa duela jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, idatziz. Adierazi beharko du zerbitzuen zer parte azpikontratatzeko asmoa duen, zein den enpresa azpikontratista, zein diren harekin harremanetan jartzeko datuak eta nor diren haren legezko ordezkariak; justifikatu azpikontratistak baduela kontratatzen diren zerbitzuak emateko gaitasun nahikoa, eskura dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak eta haren esperientzia aipatuta; eta egiaztatu azpikontratista ez dagoela kontratua egitea debekatzen duen egoeraren batean. Gero, kontratu nagusia betetzen den bitartean informazio horretan guztian gertatzen den aldaketa ororen berri eman beharko du, eta beharrezkoa den informazio guztia eman enpresa azpikontratista berrien inguruan.

25.12. Kontratuaren aldaketei.

Behin kontratua burututa, kontratazio organoak interes publikoko arrazoiengatik bakarrik egin ahalko ditu aldaketak, SPKLren 203.2 b) eta 205. artikuluek xedatzen dituzten kasu eta kondizioetan eta artikulu horiek ezartzen dituzten mugen barruan.

Kontratuan aldaketak egin aurretik, bermea berregokituko da. Aldaketak SPKLren 153. artikuluaren arabera formalizatuko dira, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluekin bat etorriz argitaratuko dira.

Beste edozein kasutan, kontratua hitzartutakoaz beste modu batean bete behar bada, suntsiarazi egingo da, eta beste kontratu bat egingo da, dagozkion kondizioetan –aurrez, beharrezkoa bada, beste deialdi eta lizitazio publiko bat egingo dira, SPKLri jarraikiz–. Nolanahi ere, SPKLren 213.6 artikuluarekin bat etorriz, zerbitzuan eragozpen larririk ez sortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu kontratistak.

25.13 Kontratua eteteari.
IRUNVIk esleipendunarekin akordio batera iritsita erabaki ahalko du, betiere aurreikusi ez diren arrazoien ondorioz, eta erabakia behar bezala justifikatu beharko du espedientean. Horretarako, akta bat egingo da, kontratua eteteko arrazoiak eta lanen izatezko egoera jasotzen dituena.

Kontratistak ezingo ditu eten lanak hitzartutakoaren aplikazioan desadostasunak daudelako, eta bere gain hartuko ditu desadostasun horien ondoriozko kalte-galerak. Gero, egoki deritzen neurriak hartu ahalko ditu, edo erreklamazioa aurkeztu.

25.14. Kontratua suntsiarazi delako eta bukatu edo bete delako azkenduko da. Honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

- Kontratuaren funtsezko klausulak ez betetzea.

- Indibiduala bada, kontratista hiltzea edo ezinduta geratzea eta, sozietate bat bada, beronen nortasun juridikoa azkentzea. Sozietate kontratistak enpresen fusio batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du, entitate xurgatzailearekin edo fusioaren ondoriozkoarekin, eta entitate horrek kontratutik sortzen diren eskubide eta eginbehar guztiak subrogatuko ditu, eta, zatiketa eragiketa batean edo jarduera adar baten ekarpen edo eskualdaketa egiteko eragiketa batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du, entitate onuradunarekin edo ondoriozkoarekin, eta entitate horrek kontratuaren ondoriozko eskubide eta eginbeharrak subrogatuko ditu, betiere kontratua esleitzen denean beharrezkoa den kaudimena badu.

- Kontratista epeak betetzen atzeratzea.

- Kontratua lagatzea.

- IRUNVIk eta kontratistak kontratuaren suntsiarazpena adostea.

- Beste edozein prozeduratan hartzekodunen konkurtsoa edo kaudimengabezia deklaratzea.

- Esleipendunak betetzeko eginbeharrak izatea Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.

- IRUNVIren zuzendaritza eta ikuskaritza ahalak oztopatzea.

- Kontratua indarrean dagoen bitartean kontratistak esku hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea edo indarreko hitzarmen kolektiboek haientzat finkatzen dituzten baldintzak ez betetzea.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta suntsiarazten bada kontratua, kontratistak kalte-galeren ordaina eman beharko dio IRUNVIri. Zenbateko hori bermearekin ordainduko da, eta, handiagoa bada bahitzen den bermearena baino, falta den kopurua kontratistaren kontura izango da.

25.15. Kontratua ez betetzeagatiko zigorrak

a) Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea.

Kontratista kontratua betetzeko epeak (guztizkoa zein partzialak) betetzen atzeratzen bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, IRUNVIk kontratua suntsiarazi ahalko du, eta kontratistari bermea galarazi, edo zigorra jarri: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko, BEZa kanpo.

Kontratistak kontratua betetzen atzeratzeagatik ordaindu beharreko zigorra kontratuaren prezioaren % 5en multiploa den bakoitzean, kontratazio organoak kontratua suntsiarazi ahalko du, edo kontratuak aurrera jarraitzea erabaki, beste zigor batzuk jarrita.

b) Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea

Baldin eta kontratistak ez badu ematen kontratuaren barruan zehaztutako zerbitzuen parte bat berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, IRUNVIk kontratua suntsiarazi ahalko du, edo kontratuaren guztizko prezioaren % 10eko zigorra jarri.

c) Betetze akastuna

Zerbitzua oker ematen bada, IRUNVIk zigorrak jarri ahalko ditu. Zigor bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 10 izan ahalko da gehienez ere, BEZa kanpo, eta zigorren guztizko zenbatekoa, hitzartutako prezioaren % 50 gehienez ere.

d) Kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren funtsezko eginbeharrak eta, bereziki, behin eta berriro atzeratzen bada soldatak ordaintzen edo soldatari dagokionez aplikatzen dituen kondizioak okerragoak badira hitzarmen kolektiboen araberakoak baino eta aplikazio hori larria eta dolozkoa bada, IRUNVIk zigorrak jarri ahalko ditu. Zigor bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 10 izan ahalko da gehienez ere, BEZa kanpo, eta zigorren guztizko zenbatekoa, hitzartutako prezioaren % 50 gehienez ere.

e) Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea.

Kontratistak ez baditu betetzen azpikontratistekin dituen eginbeharrak, IRUNVIk zigorrak jarri ahalko ditu. Zigor bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 10 izan ahalko da gehienez ere, BEZa kanpo, eta zigorren guztizko zenbatekoa, hitzartutako prezioaren % 50 gehienez ere.

26. DATU PERTSONALEN BABESA

Enpresa esleipendunak kontratatzen diren zerbitzuen kari ezagutzen dituen datuak konfidentzialtzat hartuko dira, eta haien identitatea eta isilpekotasuna babestu beharko du enpresak.

Enpresa esleipendunak sekretu profesionala urratzen badu, urraketaren ondoriozko kalte-galeren ordaina eman beharko die IRUNVIri eta kaltetutako pertsonei.

Enpresa esleipendunak datu pertsonalak erabili eta tratatu behar baditu kontratua betetzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoa eta berau garatzeko araudia beteko ditu.

Enpresa esleipendunak ezingo ditu kontratuak aipatzen duenaz beste xede baterako erabili kontratua dela-eta eskuratzen dituen datu pertsonalak, ezta beste pertsona batzuei laga ere, are gordetzeko laga nahi badizkie ere.

Behin kontratua beteta, tratatutako datu pertsonalak IRUNVIri entregatu beharko zaizkio.

27. IRUNVIren ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

27.1. Eskumen hauek izango ditu IRUNVIk, SPKLren eta APKLEOren mugen barruan, haien araberako kondizioetan eta haien ondorioetarako: kontratua interpretatzea, kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiak direla-eta, kontratistari kontratua betetzeko moduarengatik egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratua etetea, kontratua suntsiaraztea eta kontratuaren suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea.

Era berean, enpresa kontratistek kontratua bete bitartean egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko eskumena izango du IRUNVIk, aipatutako legeen araberako kondizioetan eta haien mugen barruan.

IRUNVIk kontratuak interpretatu, aldatu eta suntsiarazteko eskumenez baliatuz hartzen dituen erabakiak berehala bete beharko dira.

27.2. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du aldeen artean IRUNVIk egiten dituen kontratuen prestakuntza eta esleipenaren inguruan sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena.

IRUNVIK egiten dituen kontratuen ondorioen inguruan eta haiek aldatu eta azkentzearen inguruan sortzen diren eztabaidak erabakitzeko eskumena, berriz, jurisdikzio zibilak izango du.

27.3. Kontratazio arloko errekurtso berezirik jartzen bada, zeina SPKLren 47. artikuluak arautzen duen, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ebatziko du, zeina abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez sortu zen.

27.4. Auzirik badago, esleipendunak bere jurisdikzio foruari berariaz uko egin, eta Gipuzkoako epaitegi eta auzitegien pean gelditukо da.

I. ERANSKINA. LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. Kontratazio prozeduraren tramiteak egiteko (dokumentuak bidaltzeko, kontratua sinatzeko, jakinarazpenak jasotzeko…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko eskakizunak

1.1. Eskakizun administratiboak

a) Ziurtagiri digital bat izatea, Irungo Udalak tramitazio elektronikorako erabiltzea baimendu duena. Gaur egun, honako hauek daude erabilgarri:
   - Izenpe (entitatea, herritarra, ordezkaria)
   - Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrikaren ziurtagiria (entitatea, herritarra, ordezkaria)
   - Nortasun agiri nazional elektronikoa
   - Camerfirma (entitatea, herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea
   - Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda –ziurtagiria izan beharko da, indarrean–
   - Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzen sisteman alta emanda
   - Bi operadore ekonomikok edo gehiagok aldi baterako enpresa elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartuta parte hartzen badute lizitazioan, konpromisoa aldi baterako gaikuntzen sisteman erregistratuta

1.2. Eskakizun teknikoak

Esteka honetan kontsultatu daiteke lizitazio elektronikorako eskakizun teknikoei buruzko informazioa: http://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantza edo intzidentziak argitzeko zerbitzua: 945016298

2. Lizitazio elektronikorako sisteman sartzeko modua

Sistema erabiltzeko, atari honetan sartu beharra dago: www.contratacion.euskadi.eus.

II. ERANSKINA. EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1. Lizitatzaileak Europako kontratazio agiri bakarra aurkeztea plegu honek lizitazio prozeduran parte hartzeko zehazten dituen AURRETIAZKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITUELAKO AURRETIAZKO FROGA da.

Lizitatzaileek EKAB aurkeztu beharko dute (kontratazio publikoaren esparruko prozedura batean parte hartu nahi duten enpresen egoera finantzarioaren, gaitasunen eta egokitasunaren erantzukizunpeko adierazpena), SPKLren 140. artikuluarekin bat etorriz eta Kontratazio agiri europar bakarraren formulario normalizatua eta berau betetzeko jarraibideak ezartzeko **Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (EB) 2016/7 Exekuzio Erregelamenduarekin bat etorriz**.

Aurrez 1. ARTXIBO ELEKTRONIKOAREN BARRUAN aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko ahalmenak erabili ahalko ditu kontratazio organoak, eta, horretarako, dagozkion frogagiriak aurkez daitezela errekeritu, 39/2015 Legearen 69. artikuluaren arabera.

Nolanahi ere, lizitatzaileak EKAB aurkezteak berekin dakar konpromiso bat: kontratua hari esleitzea proposatzen bada, agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztea, 33. klausularekin bat etorriz.

2. Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatua

Lizitatzaileek helbide elektroniko honetan eskuratu dezakete Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatua: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

3. Europako kontratazio agiri bakarra betetzeko jarraibideak

Deklaratzen diren eskakizunak lizitazio epearen muga egunerako bete beharko dira, kontratatzeko debekuak izan ezik; alde horretatik, kontratua formalizatu arte ezingo da egon kontratatzea debekatzen duen egoera batean, eta Administrazioak egiaztapen lanak egin ahalko ditu prozeduraren edozein unetan.

Agiria sinatzen duen pertsonak horretarako ahalmen nahikoa izan beharko du.

Kontratatzen diren zerbitzuak **lotetan zatitzea** aurreikusten bada, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari dagozkion eskakizunak desberdinak badira lote baterako eta besterako, EKAB bat aurkeztuko da kaudimen eskakizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote multzo bakoitzeko.

Lizitatzaileak **kanpoko bitartekoekin betetzen badu dagozkion baliabideak adskribatzeko eskakizuna**, lizitatzaileak ez ezik, kontratua betetzeko adskribatzen den bitarteko bakoitzak aurkeztu beharko du EKAB.

Bi enpresak edo gehiagok **aldi baterako enpresa elkarte bat** eratuta parte hartzen badute lizitazioan, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena akreditatu beharko ditu, Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatua aurkeztuta. Gainera, 1. ARTXIBO ELEKTRONIKOAREN BARRUAN, Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatuaz gain eta aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaz edo behin-behineko bermearen egiaztagiriaz gain, lizitatzaileak enpresa talde bateko partaide direlako edo ez direlako adierazpena sartu beharko da, **plegu honen V. eranskineko ereduaren arabera**.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatuta dauden enpresek** ez dituzte eman beharko inskribatutako datuak, betiere eguneratuta badaude eta Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatuan zirkunstantzia hori aipatzen bada. Lizitatzaileek ziurtatu beharko dute zer datu dauden inskribatuta eta eguneratuta eta zein ez, eta, datu edo informazioren bat ez badago erregistro horietako batean edo ez badago eguneratuta, formularioa beteta eman beharko dute.

Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek **dokumentu hauek kontsultatu ahalko dituzte**:

- (EB) 2016/7 Erregelamendua: https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf
- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen 2016ko apirilaren 6ko gomendioa: http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4. Prozedura honetarako formulario berezia jasotzen duen XML fitxategia kontratatzailearen profilean dago.

III. ERANSKINA. ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

…… jaunak/andreak [helbidea: ……; NAN zk.: ……], bere izenean edo …… enpresako administratzaile bakarra / ahalduna den aldetik [helbidea: ……; IFK: ……], eta …… jaunak/andreak [helbidea: ……; NAN zk.: ……], bere izenean edo …… enpresako administratzaile bakarra / ahalduna den aldetik [helbidea: ……; IFK: ……]

ADIERAZTEN DUTE:

Konpromisoa hartzen dute aldi baterako enpresa elkarte bat formalki eratzeko, zeinetan % ……(e)ko eta % ……(e)ko partaidetza izango duten hurrenez hurren, eta …… jauna/andrea ordezkari edo ahaldun bakar izendatzen dute, eta kontratua azkendu arte beronetatik sortzen diren eskubide eta eginbeharrak erabili eta betetzeko ahalorde nahikoak ematen dizkiote,

Eta adierazpen horrekin ados dauden frogagarri, zeina ……(e)n 202…(e)ko ……aren .....(e)(a)n egiten duten, sinatu egiten dute.

Stua.: Stua.:

Enpresaren zigilua Enpresaren zigilua

IV. ERANSKINA. ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen duen enpresaren izenean**

Sozietate ordezkatuaren izena:

Sozietate ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU:

Ordezkatzen duen enpresa...

☐ **BADAGO** Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluak aipatzen dituen egoeretako batean.
☐ **EZ DAGO** Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluak aipatzen dituen egoeretako batean ere.

Baiezkoan

☐	**EZ da talde berekoak diren edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean dauden enpresekin egindako kontratuaren esleipenean parte hartzen.**
☐	**BAI,** talde berekoak diren edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezko kasuren bat betetzen duten enpresekin egindako kontratuaren esleipenean parte hartzen badu, proposamen indibidualak aurkeztu beharko ditu. Proposamen horiek honako hauek dira:

IFZ/IFK	Sozietatearen izena

(*) Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua: “Sozietate talde orotako sozietate nagusiak atal honek xedatzen duen bezala formulatu behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten bateratuak”.

V. ERANSKINA. KONFIDENTZIALTZAT HARTZEN DIREN DOKUMENTU ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen duen enpresaren izenean**

Sozietate ordezkatuaren izena:

Sozietate ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU:

Eskaintza osatzen duten **dokumentu, informazio eta gai hauek** konfidentzialtzat ditu, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta baitaude:

1.

2.

3.

Arrazoi hauengatik dira konfidentzialak datu horiek:

1.

2.

VI. ERANSKINA. APLIKATUKO DEN HITZARMEN KOLEKTIBOA

[1] …… jaunak/andreak [NAN: ……], bere izenean edo …… operadore ekonomikoaren izenean [IFZ: ……],

ADIERAZTEN DU:

Esleipendun gertatzen bada, hitzarmen kolektibo hau aplikatuko die kontratatzen diren zerbitzuak emango dituzten langileei*: ……[2]

[1] **operadore ekonomikok edo gehiagok aldi baterako enpresa elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartuta aurkezten badute eskaintza, operadore ekonomiko bakoitzak behar bezala sinatuta aurkeztu beharko da adierazpen hau, edo haietako bakoitzaren ordezkariak sinatuta.**<0}

[2] **Hitzarmen kolektiboaren izena adierazi behar da.**

VII. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak [helbidea: .....; PK: .....; udalerria: .....; NAN zk.: .....; telf..: .....], bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaren jabe dela, bere izenean edo ..... enpresaren izenean [helbidea: .....; PK: .....; udalerria: .....; IFK: .....; telf..: .....], IRUNVIk ..... kontratatzeko deitutako prozeduraren berri izan duenez,

ADIERAZTEN DU:

I. Kontratua ..... EUROAN betetzeko konpromisoa hartzen du, BEZa barne. Honako hau da aurrekontu xehatua:

Zenbateko garbia: ..... €
BEZa (%): ..... €
GUZTIZKOA: ..... €

II. Baldintza teknikoen plegua ezagutzen du, beronen edukia barne, eta bat dator. Era berean, klausula administratibo berezien plegua eta kontratua arautuko duen gainontzeko dokumentazioa ezagutzen ditu, eta berariaz onartu eta men egiten die, beren osotasunean.

.....(e)n, 20..(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Stua.:
NAN: